

«Elkarri irakasten jardun gabe, asko ikasi dugu elkarrengandik»

SEBASTIAN LIZASO eta ANDONI EGAÑA Bertsolariak

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ez dute parte hartu Lizasok eta Egañak, baina ez zaie plazarik falta

XABI AIZPURUA

Zarautz • Urola Kostako Hitza

Sebastian Lizasori (Azpeitia, 1958) eta Andoni Egañari (Zarautz, 1961) noiznahi egokitzen zaie elkarrekin abestea. Jaialdi handi batean edo bertso afari batean. Lehenbiziko aldia, berriz, ez dute gogoratu ere egiten. Azken 20 urte hauetan, milaka ordu pasatu dute elkarrekin, eta ez dute aldatzeko asmorik erakusten oraingoz. Egañak «jarria» hitzarekin definitu du Lizaso; Lizasok Egaña «kalkulagailua» dela dio. Hitza eman eta kalkulatu ezinezko jarioa erakutsi dute.

Jarraitzen ari al zarete G puntua?

SEBASTIAN LIZASO: Saioak jarraitzen ari naiz, baina fisikoki ez naiz izan oraindik. Guk dauzkagun bertso saioekin tokatu izan zaizkigu beti. Informazioa badugu, batek ez bada besteak kontatzen digulako. Gainera, bukatu eta segituan jakiten da emaitza gehienetan.

ANDONI EGAÑA: Gu ere morbosoko gara azken batean. Badaukagu jakin-nahi hori.

Gisa honetako txapelketek zer ematen diote bertsolaritzari, eta zer kendu?

S.L.: Nik beti esaten dut txapelketa apustu bat dela, gutxi batzuei poza ematen die eta multzo handi bati penaa.

A.E.: Hori ikuspegi indibiduala da, eta horrek ere agintzen du. Baina ikuspegi kolektibo batetik, aldagaiak ez daude pozetan eta penetan. Bertsolaritzari susperraldiak ematea, belaualdien arteko aldatketak ahalbidetzea... Helburuak horiek izan ohi dira, eta neurri batean lortzen dira. Nire ustez, Bertsozale Elkartek egin behar du beti gogoeta eta memento horretan zer funtzio daukan ikusi. Eta funtziorik baldin badauka, egin. Funtziorik ez baldin badauka, zertarako egin?

Eta G puntua zer funtzio du Gipuzkoan?

A.E.: Nik uste dut G puntuaren ikurburua ona dela. Gainera, Gipuzkoan beti egon da galdera hori, ea funtziorik ba ote duen. Agian, Nafarroan beste kontu bat da. Edo Bizkaian, belaualdi zatiketa handi bat egon zen lurraldea izan zen: Lopategi, Azpillaga eta Amurizaren ondoren, Iturriaga eta Elorza iritsi arte ez zen egon lotura handirik. Gipuzkoan masa kritiko handiagok egon da betiere, eta funtzioaren galdera airean gelditu da.



XABI AIZPURUA / UROLA KOSTAKO HITZA

S.L.: Aurtengoan, batetik ikusi da bertsolariek erantzun dutela eta parte-hartze zabala dagoela, eta, bestetik, publikoak ere baiezkotzen dute. Ez da normala hasieratik hainbeste jende ibiltzea; lehen-goan Zumaian ere jendea kanpoan gelditu zen. Ilunbeto apustua egin zen, eta ondo egindakoa dela erakutsi da, finalerako jendea erakarririko duelako.

A.E.: Bertsolariaren norbanakoari helduta, batzuentzat erakuslelhoa edo eskaparatea izango da, besteentzat...

S.L.: Besteentzat eskapada galanta!

Zergatik ez duzue parte hartu?

S.L.: Bideak irekitzeko behar baldin badu, aurrean topea ezin da jarri. Erakuslehotik erretiratzeko modu bat da, besteei lekua utzita.

A.E.: Orain dela 12 urte funtzioa belaualdi berriak bultzatzea baldin bazen, zer egiten genuen ia seguru finalista izango ginen bost lagunek han? Zenbati uzten genion tartea? Orain gauzak ezberdinak dira. Askok ere segidakoagoa delako bertsogintza adinari begiratu-ta. Gaur egun 34 urteko oso bertsolari onak daude, baina 30 urteko oso onak ere bai, eta 25ekoak eta 18koak. Asko hedatu eta garatu da bertsogintza azken urteetan eta ez dago piramide bakar bat, ikuspegi

bakarrarekin. Ez da lehen bezain monolitikoa.

Hasi zinetenetik, bertsolaritzak izan duen bilakaera, zer aldaketa nabarmenduko zenukete?

S.L.: Bertsoa izateari utzi gabe, gauza gehiagotara egokitzen jakin du. Horregatik mantentzen dira betiko bertso saioak, afariak eta jaialdiak, baina gauza berriak sortu dira: bertso-tranpak, antzerkia, poteoak, kabareta... Aniztasun gehiago dago, eta bertsozaleari ere aukera gehiago ematen dio gozatzeko.

A.E.: Neurria, doinua eta errima ez dira aldatu, hortxe jarraitzen dute. Baina gainerako guztia asko aldatu da, gizartea bera ere aldatu delako. Adibidez, bertsolarien eta en-

tzuleen ikuspegi monolitikoa aldatu da. 60ko hamarkadan balio komunak zituzten ia guztiak. Jainkoa, adibidez, %99k sinesten zuten Jainkoa bazela. Familiaren ikuspegi bat eta bakarra zegoen. Gaur egun, berriz, entzuleria oso ezpaldua dago alde horretatik. Entzule horien aurrean zerbait ekoizti beharra askoz ere konplikatua da orain.

Konpliztzeo beharragatik?

A.E.: Gaur egun ezin da konplitu guztiek, hori hala da. Adibide bat: Uztapideri 60ko hamarkadako txapelketa batean *Ama* gaia jarrita, hamarrek txiki batean, azken puntuak bildu zuen mamia, «beste zer esanik ez da, esatean ama» abestuz. Horrek balio izan zuen orduko entzulea emozionatzeko. 80an, Amurizari *Aita* gaia jarri ziotenean, aita konkretu bat margotu behar izan zuen, entzulea ez zelako «aita» hitza entzunda bakarrik emozionatzen. Eta, gaur egun, bakoitzak ahal duena kontatzen du, istorio bat asmatzen du edo egia kontatzen du, publikoa ere ezberdina delako. Unibertsitatearekin egindako ikerketa batean, bertsolariengandik gehien zer eskertzen duten galdetutakoan, euskararen aurretik agertzen dira irudimena eta umorea. Hori orain dela 35 urte

galdezu izan balitz, euskara izango zatekeen lehenbizikoa.

S.L.: Bertsolaritza asko hiritartu da. Gure aitaren garaian, gai aldetik ere baserri inguruko gaiak ziren gehienak. Gaur egun, munduko edozein gaik balio du. Ni hasi nintzen garaian, baserrian jaio ez zen bertsolari bakarra nintzen. Gaur egunean, alerik ere ez da egongo; oso-oso gutxi egongo dira baserriarrak.

Neurri batean, aipatutako ibilbide hori elkarrekin egin duzue.

A.E.: Kalkulu txar bat eginda, 1.000 eta 1.500 saio artean egingo genituen elkarrekin.

Oraindik elkar harritzeko gaitasunik ba al duzue?

S.L.: Batzuetan bai, onerako eta txarrerako.

A.E.: Bizimodua aldatu egiten da, eta biona aldatzen ikustea polita da. Joerak dira, orain sei urte ni kirola egiten hasi nintzen, eta Sebastian orain dela bi urte, gero nik utzi egin nuen...

Elkarrengandik ikasi ere egingo zenuten.

S.L.: Elkarri irakasten jardun gabe, asko ikasi dugu elkarrengandik. Hainbeste aldiz elkarrekin egonda, beti ikasten da.

A.E.: Ez diogu elkarri aholkurik eman behin ere. Inguruan baldin bazabiltza, arreta pixka batekin, ikasi egiten dira gauzak. Bertsolaritza alde horretatik oso indibidualista da, bakoitzak bere burua salbatu behar du mikrofonoaren aurrean. Baina aldi berean, lagunarekin egin behar da. Bere argudioaren indarrak ematen dit niri erantzuteko indarra. Oholtzatik jaistean, sekula ez dugu esaten «gaur saio ona egin diat», beti «egin diagu» esaten dugu, pluralen. Etxerakoan, orduan bai, «gaur eroso sentitu nauk»; baina lehen espresioa ez da bakarkakoa.

Saio ondorengo sentipen horiek parte-katuak izaten al dira edo oso desberdinak izan daitezke?

A.E.: Zaila da batek eta besteak desberdin sentitzea.

S.L.: Bi lagun joanda, batek oso saio ona egiten baldin badu, besteak oso txarra ezin du egin. Izan ere, batek txarra egiten badu besteak ezin izango du oso saio onik atera. Bien artean egin behar da. Azken batean, bertsoa elkarriketa da, eta bat isilik baldin badago besteak alferrik jardungo du.

A.E.: Laguna ezinean ari bada, ez duzu mundua jango.

Zer arrazoik bultzatzen zaituzte bertso-tan jarraitzeraz?

S.L.: Nik tarteka pentsatzen dut, aspertu ere... Laster 50 urte egin behar eta etxera alde egitea al duzue hobe izango? Baina, batetik bertsoa gustatzen zait, eta ikusten dut jende batek gure bertsoa estimatzen duela. Eta jende askok esaten ez duena ere bai: plazan ohitutakoak plaza behar du.

A.E.: Gustatu egiten zaidalako jarraitzen dut nik. Bertsotan egitea, lagunekin egotea edo parrandara joatea, mundutxo bat da. Benetako adiskide ere bihurtzen gara sarri gabiltzanak. Hori uzte...

«Asko hedatu eta garatu da bertsogintza. Ez dago piramide bakar bat, ez da lehen bezain monolitikoa»

ANDONI EGAÑA
BERTSOLARIA

«Bertsoa elkarriketa da. Bi lagun joanda, batek oso saio ona egiten badu, besteak ezin du oso txarra egin»

SEBASTIAN LIZASO
BERTSOLARIA